



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAN JASOTZEN DIREN LAN ETEKINEN GAINEAN EGIN BEHARREKO ATXIKIPENEN EHUNEKOAK ALDATZEKO FORU DEKRETU PROIEKTUAZ.

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituenak, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) Arauaren helburuak
- d) Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergan jasotzen diren lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenaren ehunekoak aldatu behar dituen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, abenduaren 11ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.



AURREKARIAK	Batzar Nagusietan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren tarifa aldatzen duen foru arau proiektu bat izapidetzen ari da.
KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Egokitzea lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehunekoak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren tarifaren aldaketari, baldin eta azkenean Batzar Nagusietan onesten bada.
ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Beharrezkoa eta egokia da aldaketa egitea, atxikipenaren ehunekoak egokitzeko, hala behar balitz.
XEDEAK	Aldatzea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasotzen diren lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehunekoak.
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Ez dago beste aukerarik zergaren oraingo egituraren arabera.